

## Espedizio eta espedizioak

**A**ZKEN urteotan alpinismoa ikuspuntu askotatik nabari aldatu bada ere, berrikuntza nabarmenena txango-alorrean gertatu da.

Historia berria dugu honako hau. Ez dezagun ahaztu aurreneko zortzimilakoa duela 40 urte eskas igo zela (Annapurna, 1950) eta 10 urte baino ez direla euskaldunok lehen aldiz zortzimilako baten gailurrean oinatzat utzi zutela (Daulaghiri, 1979). Bitarte labur horretan eta gure herriari dagokionez, aurrerakuntza azkarra izan da oso: dagoeneko 14 zortzimilakoetarik 9 igo dira, honek bere baitan dakarrela Euskal Herriko 28 mendizale goreneko gainetan bertaratzeko. Laz, alegia, dotzena bat espedizio izan ziren Asiako mendilerro haundietan eta beste hamabiko bat Hegoameriketako Andesetako hainbat lekutan.

Horrez gero Pyrenaicaren ale honetan, pasa den udan arrakasta izan zuten bi espedizioen berri ematen dizuegu, Himalaya eta Karakorum-era egindakoak hain zuzen ere. Eta horrela egiteari egoki deritzogu zenbait arrazoi kontutan harturik. Lehenengo eta behin, gaia interesgarria delako. Joan den urtean burutu genuen inkestaren arabera (Pyrenaica, 155 zkia.), gure mendizaleen artean %58, hau da, 7.000 lagun baino gehiago, txangoren batetan esku hartzeko prest azaldu ginen. Horrez gain, atsegin zaigu geure buruari noizean behin gogoratzea Pyrenaicaren helburuetariko bat gure alpinismoaren bilakaeran lekuko izatea dela. Eta horri jarraiki, argi dago txangolariak kirol honen elitea direla, horren ondorioz, hots, eliteen irudiaren eraginagatik, jendearentzako erakargarri bihurtzen delarik.

Baina ez diezaigun adarra sor gure buruari. Bere adierazpideen ugaritasuna dela eta, espedizioaren zernolakoa zabalduz joan da jatorrizko esanahia galdu arte. Atzerriko adibide bat hartzen badugu, Britaina Haundikoa esaterako, ohartu egingo gara 1990. urtean 500 espedizio baino gehiago aterako direla bere unibertsitateetatik. Espedizio-talde horiek 5 kidek bana osatzen dituzte eta prest agertzen dira hiru hilabetetan lur osoan zehar bidaia egiteko «abentura eta aurkikuntza zientifiko»en bila. Bai baldintza ezberdinak gaurkoak eta duela 20 urtetakoak, Everesterako «Tximist» espedizioa prestatzen hasi ginenean! Labur esanda, gaur egun zortzimilako bat egin ahal izateko 600.000 pezeta, hilabeteko oporrak, gorputzaren aldetik goiarekiko erantzun egokia... eta, momentua heltzerakoan, suerte ona eguraldiarekin besterik ez da behar.

Halere, mendi altuenetako zailtasunei desafia egiteko konpromezua ez dator bat, egun behintzat, gure artean antolatzen diren espedizio-kopuruarekin, %70ean herri-erakundeek ordaindutakoak. Ez dira ohizkoak 89an Makalu-ko Espoloiara edo 90ean Everesten hegomendebaldeko aldera egindako proiektuak bezalakoak. Horretantxe ahalegindu eta hurbiletik jarraitzea mereziko luke, bai horixe! Ea nola bilatzen dituzten itenbideak gehiegizko egoera baten aurrean, kontutan sarturik orain arte saiaturiko hamairu bideretatik bietan besterik ez dela lortu helburua, eta horretan ere, tamalez, hainbat hildako izan direla ordezko.

## Expediciones y expediciones

**S**i ha habido muchos aspectos del alpinismo que han sufrido cambios significativos en los últimos años, quizá el más llamativo de todos ellos ha ocurrido en el campo de las expediciones.

Es ésta una historia muy reciente. No olvidemos que el primer ochomil se ascendió hace apenas 40 años (Annapurna, 1950) y que sólo hace 10 años que los vascos llegaron por primera vez a la cumbre de un ochomil (Daulaghiri, 1979). En este corto intervalo, y ciñéndonos a nuestro país, la progresión ha sido muy rápida: se han ascendido ya a 9 de los 14 ochomiles principales con lo que un total de 28 montañeros vascos han estado en las distintas puntas más altas. El año pasado hubo una docena de expediciones vascas en las grandes cordilleras de Asia y otra docena de ellas fueron a los distintos Andes sudamericanos.

Así que en este número de Pyrenaica reproducimos dos expediciones exitosas del verano pasado, una al Himalaya y otra al Karakorum. Y lo hacemos así por varias razones. En primer lugar, porque el tema interesa. Como reflejaba la encuesta que lanzamos el año pasado (Pyrenaica n.º 155) el 58% de nuestros montañeros, más de 7.000 personas, estamos dispuestos a apuntarnos a una expedición. Además, y de vez en cuando nos gusta repetirnoslo a nosotros mismos, uno de los objetivos de Pyrenaica es el de ser un testigo de la historia de nuestro alpinismo. Y los expedicionarios vienen a ser quizá la élite más aceptada entre los practicantes de nuestro deporte, con el consiguiente efecto positivo de arrastre que la imagen de las élites comporta.

Pero tampoco nos engañemos. Por su propia multiplicación, el concepto de expedición se ha ido ampliando hasta llegar a perder su contenido original. Por tomar un ejemplo de fuera, en 1990 saldrán más de 500 expediciones sólo de las universidades británicas, con un perfil tipo de 5 miembros para viajar tres meses por las distintas partes del globo, en busca de «la aventura y el descubrimiento científico». ¡Qué diferentes son los condicionantes de ahora y de hace 20 años cuando empezábamos a preparar la expedición Tximist al Everest! Simplificando mucho el ejemplo, el ir a hacer un ochomil hoy en día puede ser cuestión de 600.000 pesetas, un mes de vacaciones, una respuesta orgánica favorable a la altura... y buena suerte con el tiempo cuando llegue el momento.

Sin embargo, la busca de compromisos de dificultad en las montañas más grandes no se corresponde, por lo menos todavía, con el número de expediciones que se montan —y en el 70% de los casos se financian públicamente— entre nosotros. Son excepcionales los proyectos como el del 89 al Espolón del Makalu o el del 90 a la Cara SW del Everest. Ese sí que será verdaderamente un empeño que merecerá la pena seguir muy de cerca, para verles intentar solucionar un problema extremo, que hasta ahora sólo se ha resuelto dos de las trece veces que se ha intentado, y eso pagando un precio muy fuerte en términos de vidas humanas.